

HORMADI. Urtarrilaren 5ean berrekingo diote Ligari, Grenoblen, eta bihar hasiko dira berriro prestaketa lanetan

Angeluarrek aise hobetu dute lehen faseko jokoa, eta itxaropentsu dira

Angers (1-7) eta Amiens (4-2) menderatuta, Hormadi Mulhouse eta Angersen parean da

Koldo Alduntzin | **DONOSTIA**

Angeluko Hormadiri uste baino urte amaiera gozoagoa gertatu zaio, Frantziako Elite Ligako azken bi partidak segidan irabazita: Angersen 1-7 eta Amiensen aurka 4-2. Oparitzat hartu zuten angeluarrek, gehienbat aurreko partidaren Reimsen aurka 2-9 galdu ondoren. Sarritan aipatu dugun irregularitasuna zuzentzea du lehenbiziko xedea, eta badirudi hala gertatzen ari dela.

«Argi dago gai garestiaren kontra egin genituen gauzak egiteko, baina ez zitzaizkigun nahi bezala iristen gauzak. Reimsen kontra galduta, ordea, talde lana gehiago landu behar genuela ohartu ginen, eta hasi dira emaitzak heltzen. Orain espero dut aitzinera begira egiten ari garen lanari jarraipena ematea, eta hobeto jokatzeko», dio Gordobil entrenatzaileak.

Lapurarrak zazpigarren postuan dira xapelgoa hasi zenetik; azken postuan, beraz. Baina behin eta berriro gogorarazi digu Gordobilek ez dela erreala postu hori, Mulhousek (16 puntu) baino partida bat gutxiago dutelako eta Angersek (18 puntu) baino bi gutxiago. Bessetik, lehen faseko jarduna hobetu dute dagoeneko Hormadikoek, hura zazpi puntu zituztela amaitu baitzuten.

Bigarren fasea amaitzeko hiru partida falta zaizkie, eta mezu hau zabaldu nahi izan du donostiarrak: «Urtarriletik aitzina, ziur nago ikuskizuna eskainiko dugula eta gol ugari sartuko dituela Hormadik; gauza interesgarriak egiten dituela, alegia». Grenoble bisitatu ondoren, Mulhousen ariko da, eta Rouenen kontra amaituko du bigarren fasea.

Ouellet Frantziarekin Mont Blancoko Torneoan

Hormadik ez du opor luzerik ukanen, etzi berrekingo baitiete entrenamenduei. Beraz, bederatzi eguneko atsedena hartuta beste hiru egun jardungo dute lanean, eta Urtezahar eta

ESANAK

KARLOS GORDOBIL
(Hormadiko entrenatzailea)

«Reimsen kontra hala galdu ondoren, lan taldea gehiago landu behar genuela ohartu ginen»

«Espero dut orain egiten ari garen lanean segitzea, eta behar bezalako etekinak ateratzea»

«Urtarriletik aitzina, ziur nago ikuskizuna eskainiko duela eta gol ugari sartuko dituela Hormadik»

Urteberri egunak jai hartuta, angeluarrek Grenobleren aurkako partida prestatzeko ekin diote buru-belarri, urtarrilaren 5ean han jokatu baitute 26. jardunaldiari dagokion norgehiagoka.

Robert Ouellet kapitaina Frantziarekin da Mont Blancoko Torneoan jokatzeko. Horregatik, baliteke bihar arazoak ukaita Hormadirekin entrenatzeko. Mont Blancoko Torneoan lau talde ari dira lehian: Frantzia, Errusia B, Finlandia B eta Eslovenia. Hain justu, Neguko Olinpiar Jokoak ari dira prestatzen selekzio horiek. Heldu den otsaileko bigarren astean hasiko dira Neguko Jokoak, Salt Lake Cityn (AEB).

Mont Blancoko Torneoan asteazkenean hasi zen, eta emaitzak gertatu ziren: Frantzia 2-Eslovenia 3 (Saint-Gervais); Errusia B 9-Finlandia B 6 (Annecy). Atzo, berriz, Errusia B-Eslovenia (Albertville) eta Frantzia-Finlandia B (Chamonix) ziren jokatzekoak, bart gauean. Torneoa gaur amaituko da.



KOLDO ALDUNTZIN

Hormadiko jokalaria Amiens 4-2 irabazi izana biziki ospatzen, larunbatean, La Barren.

Pixkanaka lekua egiten


RAPHAEL LARRIEU. Hormadik dituen hiru euskal herritar gazteetako bat da, eta minutu asko ari da jokatzeko, gehiago prestatzeko aukera duelako

K. Alduntzin | **ANGELU**

A tzerriko hamazazpi jokalaria ditu Hormadik, eta soilik hiru euskal herritar: Guillaume Drouot atezaina eta Xavier Daramy eta Raphael Larrieu aitzinekoak. Horiez gain, jakina, Gordobil entrenatzailea ere euskal herritarra da. Angeluko taldeak batez beste 25,2 urteko jokalaria taldea du, eta bederatzi ditu 23 urtez azpikoak. Hain justu, 23 urtez azpikoen artean dira hiru euskal herritarak.

Gordobil entrenatzaileak nahitaez jokarazi behar izan die guztiei, hainbat partida oso aldrebes ari zitzaizkielako jartzen, eta, horri esker, Larrieu minutu askotan ari da jokatzeko azkenaldian. «Ikaste-ko garaia amaitu nuen, eta orain Baionan lan egiten dudanez, aukera ematen dit goize eta arratsalde entrenatzeko. Ondorioz, pixkanaka maila ere hobetu dut, eta, horregatik, Gordobilek gehixeago jokaratzeko deliberoa hartu du. Beraz, badut xantza pittin bat partidaz partida hobetzen segitzeko», dio Larrieuk.

Lapurtar gaztearen hitzetan, hastapenean gol asko hartzen zuten, eta hirugarren lerroaz hasi zen baliatzen Karlos. «Lan handia egin dugu ahalik eta ondoen jokatzeko, eta uste dut bera oso kontent dela gurekin».



KOLDO ALDUNTZIN

Raphael Larrieu, joan zen asteko entrenamenduan.

RAPHAEL LARRIEU

Hormadiko jokalaria gaztea

«Orain Baionan ari naiz lanean, eta aukera gehiago dut goizez eta arratsez entrenatzeko»

Sarritan esan izan dugu taldearen okerrik handiena irregularitasuna dela eta, hein handi batean, ligaren hastapenak izan zuela errua. Hori aitortu du Larrieuk, eta hobekuntzaren giltzarria aipatu du:

«Oldarkor eta lehiagorragoak izan behar genuela antze-man genuen, eta halaxe jarduten hasi ginen. Europako Kopan ukan zituen emaitzak. Gero, berriro hutsetik bezala hasi behar izan genuen, eta zaila egin zitzaigun».

Orain, aldiz, badakitela «partida guztiak play-off baten antzekoak» direla, eta taldea horretaz «jakitun» dela dio. Horrez gain, honako hau ere nabarmendu du: «Arreta handiagoa jartzen dugu, eta, sutsuago jokatu, uste dut horrela segituko dugula».